*Aita Martzelen bertsoak*

## Ziortzara bake bidean
## 2014 apirilak 5a

Bizkai aldeko anai-arrebok,
honuntz ondo etorriak!
Danok bedeinka zagiezala
Jesus Jaun maitagarriak.
Hemen alkartu gaitu barriro
gure bake-egarriak,
ez dira alperrik izango gaurko
gure ahalegin barriak.

Bake-bidea hain da luzea
ta gainera aldats gora,
zertxobait lortu orduko barriz
bihurtzen gara lehengora.
Errez galtzen da ta nekez lortu
baina gatozan gaurkora:
laguntza eske gaur Ziortzara
goaz Amaren ondora.

*Lehenengo geldialdia:*

Batek hemendik, besteak handik
biraoka ta hasarrez,
bakez ta onez alperrik da ta

ez ete hobe sugarrez?
Bakea ezin da eskuratu
berez ta halanbeharrez,
Jesus Jaunak lez lortuko dogu
maitasunaren indarrez.

Batera esan, bestera hartu,
okerreko erantzuna,
egia gorde, guzurra borbor
galdu al dogu zentzuna?
Egi osorik inok ez dauka
eta nok zuzentasuna?
Jesus Jaunaren bidea hau da:
«Desbardinen batasuna».

*Bigarren geldialdia:*

Nor dan ona ta nor dan gaiztoa,
nahastuta dagoz batera;
ta gehienetan maltzur gaiztoak
urteten deusku aurrera.
Jesusek dio: «Neuk bialduta
zoaze otso artera,
bihotz-haundiko izan zaiteze
nire Aitaren antzera».

Bake-kontuak itzita gabiz
bakotxa geure lanetan,
sarri uste dot ete gabizan
bake-bila amesetan.
Halan be ekin ta jardun daigun

guztiok ahaleginetan,
izan «bidean bakegile» ta
beti jokatu benetan.

*Hirugarren geldialdia:*

Hau da eskuma, hori ezkerra
eta bestea erdiko,
hainbeste etsai bake santuan
inoiz al dira biziko?
Horra ateo, hara musulman,
gu ei gara katoliko...
baina ez ahaztu danentzat zala
jatsi gure Jesukristo.

Bakea gura, bakea behar,
hau barik bizi ezinez,
ikusten danez, ezin da lortu
burrukaz eta mitinez.
Alkar ulertzen, alkar onartzen
hori da bidea zinez,
zu ta ni behintzat bakegile izan
bake-bideak eginez.

## Azkenean herri otoitza

*Lore gorria*, polita baina
gauza gitxi naz bakarrik,

ez ete dago besterik inor
daukanik nire beharrik.
Ene Jainkoa, ez dakigula
faltatu zure indarrik,
gure artean biztu ez dedin
bakez kontrako sugarrik.

*Ni berdea* naz, zoragarria,
nor ete nire antzeko?
Baina uste dot beste batzukaz
nengoke askoz hobeto.
Jauna, lagundu sendo sinisten
garala herri bateko
alkar onartuz, alkar lagunduz
alkarrentzat beharrezko.

*Lore zuria*, ikusgarria
kolorez eta usainez?
Hau zoritxarra, nazan bestean
bakarrik iraun ezinez.
Egizu, Jauna, bizi nadila
besteekaz bat eginez
bete daigula gure Herria
bakez eta atseginez.

Txorta bakarra lorez beterik
gorri, berde eta zuri,
edertasunez ta batasunez
Euskaherria dirudi.

Ziortzan Ama lagun dogula
otoizka gagoz gaur Zuri:
Jainko maitea, bake gozoa
gure gainera isuri.